**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Agindua. Haren bitartez, diru-laguntza nominatibo bat eman zaio Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkarteari, EAE 2020rako Geodibertsitate Estrategian eta Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategian barne hartutako lan-ildoetan jarduerak egiteko.**

**Orden del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, por la que se concede una subvención nominativa a la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, Geogarapen, para la realización de actuaciones en las líneas de trabajo enmarcadas en la Estrategia de Geodiversidad de la CAPV 2020 y la Estrategia de Biodiversidad del País Vasco 2030.**

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Administrazio Orokorreko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, besteak beste, baliabide naturalak antolatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzeko lanak betetzen ditu.

En la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Administración General del País Vasco ejerce, entre otras funciones, la de ordenación de recursos naturales y conservación de la naturaleza en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuarekin bat eginez, sail horrek, besteak beste, honako funtzio hauek betetzen ditu: baliabide naturalak antolatzea eta natura kontserbatzea. Bestalde, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez, natura-ondarea babesteko arloetan aritzen da. Halaber,

De conformidad con el Decreto 77/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, las materias sobre las que dicho departamento ejerce sus funciones son entre otras, la ordenación de recursos naturales y la conservación de la naturaleza; y, a través de la

garapen jasangarria bermatu eta sustatzen du, eta ingurumenaren inguruko informazioa, parte-hartzea, sentsibilizazioa, hezkuntza eta prestakuntza ematen ditu.

Viceconsejería de Medio Ambiente, actúa en las áreas de protección del patrimonio natural; garantía y fomento del desarrollo sostenible; e información, participación, sensibilización, educación y formación ambiental.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia onartu zuen 2014an, eta, berrikiago, 2016an, Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia eta 2020rako Lehen Ekintza Plana.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda aprobó en 2014 la Estrategia de la Geodiversidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2020, y más recientemente en 2016 se aprobó la Estrategia de Biodiversidad del País Vasco 2030 y Primer Plan de Acción 2020.

Eremu horretan, Geogarapen Elkarteak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin batera, natura-ondarea kontserbatzeko jarduerak egin ditu, bereziki, geodibertsitateari dagokionez. Horiek Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak 2014an eman zion diru-laguntza izendun baten bidez egin ditu.

En ese ámbito, la Asociación Geogarapen, en colaboración con el Departamento de Medio Ambiente Planificación Territorial y Vivienda viene desarrollando actividades de conservación del Patrimonio Natural, especialmente de la geodiversidad, a través una subvención nominativa que le fue concedida por el Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial año 2014.

2017ko abenduaren 7an, Euskadiko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hitzarmen bat sinatu zuen Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkartearekin, EAEko 2020rako Geodibertsitate Estrategian eta Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategian barne hartutako lan-ildoetan jarduketak egiteko. Ondorioz, jarraipena eman zion 2014an orduko Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta

Con fecha 7 de diciembre de 2017, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la Administración General del País Vasco suscribió un Convenio de colaboración con la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca para el desarrollo de actuaciones en las líneas de trabajo enmarcadas en la Estrategia de Geodiversidad de la CAPV, 2020 y la Estrategia de Biodiversidad del País Vasco,

Geogarapen Elkartearen artean egindako akordioaren markoan emandako diru-laguntza izendunari.

2030, dando, de este modo, continuidad a la subvención nominativa concedida en 2014 en el marco del Acuerdo entre el entonces Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial y la Asociación Geogarapen.

Helburu horrekin, Geogarapen Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko kreditu nahikoa eta egokia dago apirilaren 11ko 2/2017 Legearen bidez onartutako 2017rako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan, ondorengo aurrekontu-partidan:

Con esta finalidad, se dispone de crédito adecuado y suficiente para el otorgamiento de una subvención a Geogarapen, nominativamente asignada en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2017, aprobados por Ley 2/2017, de 11 de abril, con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

17.0.1.05.12.0100.2.454.99.44210.004.G.

17.0.1.05.12.0100.2.454.99.44210.004.G.

Ondorioz, azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak finkatzen dituena) eta apirilaren 21eko 77/2017 Dekretuak (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzekoa) eman didaten eskumena baliatuta eta harekin bat etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntza eta laguntzei aplikatzekoak zaizkien

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que me otorga el Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones; el Decreto 77/2017, de 21 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y de conformidad con lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y con las demás

gainerako xedapenekin, honako hau

disposiciones aplicables a las ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**EBAZTEN DUT:**

Lehena.- HIRUROGEITA HAMAR MILA (70.000) euroko diru-laguntza izenduna ematea Geogarapen Elkarteari, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Geogarapen Euskal Kostaldearen kudeaketarako Elkartearen artean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren Eranskinean adierazitako jarduketa-ildoekin lotutako jarduerak 2017an zehar egiteak eragindako gastuak ordaintzeko.

Bigarrena.- Diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak onartzea, Aginduari erantsi zaizkionak.

Hirugarrena.- Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 123. eta 124. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindu hau Euskal

**RESUELVO**

Primero.- Otorgar a la Asociación Geogarapen una subvención nominativa por un importe máximo de SETENTA MIL (70.000) euros para atender a los gastos derivados de la realización, durante el año 2017, de las actividades relacionadas con las líneas de actuación que se señalan en Anexo del Convenio de colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, y la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, Geogarapen.

Segundo.- Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de la subvención que constan como Anexo a la presente Orden.

Tercero.- Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda en el plazo de un mes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean (uztailaren 13ko 29/1998) xedatutakoarekin bat etorriz.

de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Ignacio María Arriola López
Ingurumen Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua
Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

**Eranskina**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Geogarapen Euskal Kostaldearen kudeaketarako Elkartearen artean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren I. eranskinean adierazitako jarduketa-ildoetan zerrendatutako jarduerak 2017an zehar egiteak eragindako gastuak ordaintzeko Geogarapen Elkarteari diru-laguntza izenduna emateko oinarri arautzaileak.

**Anexo**

Bases reguladoras del otorgamiento de una subvención nominativa a la Asociación Geogarapen para financiar los gastos derivados de la realización de actividades relacionados con las líneas de actuación señaladas en el Anexo I del Convenio de colaboración entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, y la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, Geogarapen, durante el año 2017.

**1. oinarria.- Xedea:**

Diru-laguntza natura-ondarea babesteko jarduerak egiteko eta Euskal Kostaldeko Geoparkearen lurralde-eremuaren jasangarritasuna sustatzeko erabiliko da sinatutako Lankidetza Hitzarmenaren

**Base 1ª Objeto:**

El importe de la subvención será destinado a la realización de actividades de protección del patrimonio natural y fomento de la sostenibilidad en el ámbito territorial del Geoparque de la Costa Vasca en el marco del

esparruan.

Convenio de Colaboración suscrito.

**2. oinarria.- Erakunde onuraduna:**

**Base 2ª Entidad beneficiaria:**

1.- Diru-laguntza honen onuraduna izango da Geogarapen Euskal Kostaldeko Geoparkearen kudeaketarako Elkartea.

1.- Será beneficiaria de la presente subvención la Asociación para la Gestión del Geoparque de la Costa Vasca, Geogarapen.

2.- Diru-laguntza eman eta, hala badagokio, ordaindu ahal izateko, amaituta eduki behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedura nahiz zigor-prozedura guztiak, prozedura horiek oraindik izapide-aldian badaude behintzat.

2.- La concesión y, en su caso, el pago de la subvención quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.- Erakunde onuradunak ezingo du egon diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen batean, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) Azken Xedapenetatik seigarrenean ezarritakoetan ere.

3.- La entidad beneficiaria no podrá encontrarse incursa en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**3. oinarria.- Laguntzaren izaera:**

**Base 3ª Carácter de la subvención:**

1.- Diru-laguntza hau izenduna eta koiunturala da.

1.- La presente subvención es nominativa y coyuntural.

2.- Diru-laguntza hau helburu bererako beste zenbait erakunde publikok eta pribatuk eman litzaketen gainerako laguntza edo diru-laguntzekin bateratu daiteke, betiere gainfinantzaketarik ez baldin

2.- Esta subvención es compatible con otras ayudas o subvenciones, que para el mismo fin, pudieran otorgar otras entidades públicas o privadas, y cualesquiera otros recursos, siempre que de ello no se derive

badago. Hori gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko gehieneko mugaraino murriztuko da.

sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

**4. oinarria.- Diru-laguntzaren zenbatekoa:**

**Base 4ª Cuantía de la subvención:**

70.000 euroko diru-laguntza emango da gehienez.

La subvención se otorga por un importe máximo de 70.000 euros.

**5. oinarria.- Diruz lagundutako gastuak**

**Base 5ª Gastos subvencionables**

1.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluak ezarritakoarekin bat, Agindu honetan jasotako araubidearen babesean diru-laguntza jaso dezaketen gastuak honako hauek izango dira: Hitzarmenaren Eranskinean aipatutako jarduerak betetzearekin argiro lotuta daudenak.

1.- Se consideran gastos subvencionables al amparo del régimen contemplado en la presente Orden, de conformidad con lo establecido en el artículo 31 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, aquellos que estén vinculados de manera indubitada a la ejecución de las actividades señaladas en el Anexo del Convenio.

2.- Zeharkako zergak, balio erantsiaren gaineko zerga eta beste batzuk ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, baldin eta berreskuratu edo konpentsa badaitezke.

2.- No serán subvencionables los impuestos indirectos, impuesto sobre valor añadido y otros, cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

**6. oinarria.- Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta modua:**

**Base 6ª Plazos y modo de pago:**

Emandako diru-laguntza honako epe hauetan eta ezarritako baldintzak bete ostean egingo da:

- Diru-laguntzaren % 50eko lehen ordainketa bat jarraipen-batzordeak urteko jarduketa-plana onartu eta gero.
- Gainontzeko % 50a jarduketa-plana bete dela egiaztatu eta gero, honako oinarrian ezarritako forman.

El pago de la subvención concedida se realizará en los siguientes plazos y previo cumplimiento de las condiciones establecidas:

- Un primer pago del 50% del importe de la subvención tras la aprobación por la Comisión de Seguimiento del plan de actuaciones anual.
- El 50% restante tras la justificación del cumplimento del plan de actuaciones en la forma

establecida en la siguiente base.

**7. oinarria.- Justifikazioa:**

Diru-laguntzarako hitzarmen honen xede diren jarduketak justifikatuko dira jarraipen-batzordeak egindako jarduketak onartu eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari 2017ko ekitaldiko gastuak justifikatu ondoren; eta, gutxienez, dokumentu hauek entregatu beharko dira:

1. Lankidetza-hitzarmenaren I. eranskinean jasotako jarduketa-ildoekin lotutako jarduerak eta lortutako emaitzak justifikatzen dituen jarduketa-memoria bat.

2. Txosten edo memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua frogatzen duena, honako hauez osaturik:

   a. Hitzarmenaren xedeak lortzeko egindako gastuak frogatzen dituen memoria, bai eta sailkatutako zerrenda (excel formatuan) ere, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazten dituena, gastu bakoitzaren euskarri-dokumentuaren erreferentzia jasota. Euskarria faktura bat izango da, edo

**Base 7ª Justificación:**

La ejecución de las actuaciones objeto de la presente subvención convenio se justificarán tras la aprobación por la Comisión de Seguimiento de las actuaciones desarrolladas y su posterior presentación ante el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda de la justificación de los gastos del ejercicio 2017 aportando al menos la siguiente documentación:

1. Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las actividades realcionadas con las líneas de actuación recogidas en el Anexo I del Convenio de colaboración y de los resultados obtenidos.

2. Un informe económico o memoria económica del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

   a. Una memoria justificativa de los gastos realizados para la consecución de los fines del convenio, así como una relación clasificada (en formato excel) que permita identificar el acreedor, importe, fecha de emisión y en su caso fecha de pago con una remisión al documento soporte de cada uno de los gastos. El soporte consistirá en una factura o documento de valor

merkataritzako esparru juridikoan baliokide den dokumentu bat, edo administratiboki eraginkorra den bat.

b. Jarduerak finantzatu dituzten beste diru-sarrera edo diru-laguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

3. Agindu honetako helburua betetzeko sortutako dokumentuen eta lanen kopia.

**8. oinarria.- Kudeaketa-organoa:**

Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak kudeatuko du diru-laguntza.

**9. oinarria.- Erakunde onuradunak bete beharreko eginbideak eta bermeak:**

a.- Erakunde onuradunak diru-laguntza onartu behar du. Onartzean, agindu honetan ezarritako arau guztiak onartuko ditu ere bai. Hori dela eta, diru-laguntza esleitzen zaiola jakinarazten dion adierazpena jaso eta 15 eguneko epean, diru-laguntzaren erakunde onuradunak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

b.- Diru-laguntza eskatu eta eman den xede espezifikorako bakarrik erabiliko da, baldintzak

probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

b. Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado dichas actividades, con indicación de su importe y procedencia.

3. Copia de los documentos y trabajos generados en cumplimiento del objeto de la presente Orden.

**Base 8ª Órgano de gestión:**

El órgano encargado de la gestión de la subvención será la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental, del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

**Base 9ª Obligaciones y garantías a prestar por la entidad beneficiaria:**

a.- Aceptar la subvención por parte de la entidad beneficiaria, que conlleva la de todas las normas fijadas en esta Orden. En este sentido, si en el plazo de 15 días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifique la concesión de la subvención la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma se entenderá que ésta queda aceptada.

b.- Utilizar la subvención para el destino específico para el que se solicita y concede, salvo que

aldatzeari buruzko lankidetza-hitzarmenaren hamabigarren klausulan ezarritakoa aplikatu behar ez bada.

resulte de aplicación lo establecido en la cláusula decimosegunda del Convenio de colaboración sobre modificaciones.

c.- 2017ko abenduaren 31 baino lehen egiaztatzea diruz-lagundutako ekintzak eta gastuak benetan egin direla, Agindu honen bosgarren atalean ezarritakoari jarraituz.

c.- Acreditar con anterioridad al 31 de diciembre de 2017 la efectiva realización de las actividades y del gasto subvencionados, conforme a lo establecido en el apartado quinto de esta Orden.

d.- Edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk helburu bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrerarik lortuz gero, inguruabar horren berri izan eta ondorengo hamar egun balioduneko epean, horren berri ematea Natura Ondarea eta Klima Aldaketako Zuzendaritzari, eta adieraztea, halaber, organo emailea eta laguntzaren edo diru-laguntzaren zenbatekoa zein diren.

d.- Comunicar a la Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climatico, la obtención, órgano concedente y cuantía de cualesquiera otras subvenciones o ayudas otorgadas para el mismo fin procedentes de cualquier Administración o ente tanto público como privado, en el plazo de los diez días hábiles siguientes a tener conocimiento de dicha circunstancia.

Halaber, diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar, nola objektibo hala subjektibo, aldatuz gero, aurreko paragrafoan ezarritako epearen barruan horren berri emango zaio aipatu organoari.

Así mismo, deberá comunicar al citado órgano la modificación de cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que se haya tenido en cuenta para la concesión de la subvención, en el plazo indicado en el párrafo anterior.

e.- Administrazio emailearen egiaztapen-jardueren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren kontrol-jardueren eraginpean geratuko da erakunde onuraduna, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian jasota dauden jardueren mende ere.

e.- Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la administración concedente y a las de control que corresponden a la Oficina de Control Económico, además de las previstas por la normativa específica del Tribunal Vasco de Cuentas.

f.- Euskal Autonomia Erkidegoko

f.- Las demás preceptivas que

Administrazioaren eremuan diru-laguntza honen ezaugarriak dituztenei aplikatu behar zaizkien gainerako baldintzak bete beharko ditu. Zehazki, 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) 50.2 artikuluak oro har ezarritako eginbideak bete beharko ditu.

sean de aplicación a las subvenciones de las características de la presente concedidas en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en concreto las obligaciones que con carácter general establece el artículo 50.2 del Decreto Legislativo 1/97, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

**10. oinarria.- Publizitatea eta hedatzea**

Egingo diren testuak, dokumentuak eta abar euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira formatu ulergarrian eta berrerabilgarrian. Halaber, ingelesa erabiltzea gomendatzen da.

Azterlanek, egitarauek, argitalpenek eta abarrek generoaren eta berdintasunaren ikuspegiak jasoko dituzte, eta ez dute elementu diskriminatzailerik jasoko ez hizkuntzan ezta irudietan ere.

Diru-laguntza honen ondorioz aplikatu behar diren lanek eragindako dokumentuak, materialak eta datu-baseak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren esku jarri beharko dira, «Ingurumen-informazioa entregatzeko jarraibideak» dokumentuan xedatutakoari jarraikiz; dokumentu hori hemen eskuratu daiteke: http://www.euskadi.eus/informacion/instrucciones-para-la-entrega-

**Base 10ª Publicidad y difusión**

Los textos, documentos, etc. que se elaboren se redactarán en euskera y castellano en formato accesible y reutilizable. Se recomienda también el uso del inglés.

Los estudios, programas, jornadas, publicaciones etc., incorporarán las perspectivas de igualdad y de género y no contemplarán elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen.

Los documentos, materiales y bases de datos resultantes de los trabajos que resulten de la aplicación de la presente subvención deberán ponerse a la libre disposición del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco atendiendo a lo dispuesto en las «Instrucciones para la entrega de la información ambiental» disponible en: http://www.euskadi.eus/informacion/instrucciones-para-la-entrega-

de-informacion-ambiental/web01-s2ing/es/

**11. oinarria.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea**

Baldin eta aldatzen badira diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak, eta, edozelan ere, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik beste diru-laguntza batzuk edo bestelako laguntza batzuk jasotzen badira, edota, kasua bada, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, emateko agindua, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa aldatu ahal izango dira; betiere, diru-laguntzen onuradun izateko arauetan jarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

**12. oinarria.- Ez-betetzeak:**

Diru-laguntzaren onuradunak ez badu betetzen organo eskudunak oinarri hauetan ezarritako baldintzaren bat, ez-betetzea eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, interesdunari iritzia emateko aukera eman ondoren; eta gainera, zerbait jaso badu, itzuli egin beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretu bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren

de-informacion-ambiental/web01-s2ing/es/

**Base 11ª Alteración de las condiciones de la subvención**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la Orden de concesión y en su caso a la del importe concedido, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos por la norma subvencional para ser beneficiaria de ésta.

**Base 12ª Incumplimientos:**

En caso de que la beneficiaria de la subvención incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en las presentes bases, por el órgano competente, previa audiencia al interesado, se declarará el incumplimiento y la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe que corresponda en cumplimiento de lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, así como en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el

17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoa betez.

régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Horrez gain, diru-laguntza honen bidez ematekoa den zenbatekoa baino gehiago eskuratuz gero beste laguntzen edo diru-laguntzen bidez, zenbateko horretatik gora jasotakoa itzuliko beharko du, Agindu honen hirugarren atalean ezarritakoari jarraituz. Hala ere, hori guztia ez da eragozpen izango zehapenak ezartzeko, ez eta kalte-ordainak edota, dagokionean, erantzukizun penala eskatzeko ere.

Igualmente, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad objeto de la presente subvención en el supuesto de que se rebase el límite de compatibilidad con otras ayudas o subvenciones, de acuerdo con lo señalado en el apartado tercero de la presente Orden. Todo ello, sin perjuicio de las posibles sanciones que puedan imponerse, así como de las indemnizaciones por daños y perjuicios que pudieran exigirse y, en su caso, de responsabilidad penal.

Aipatutako zenbatekoek diru-sarrera publikoen izaera izango dute, dagozkien ondorioetarako.

Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos pertinentes.